

AZTER DEZAGUN GURE JOKABIDEA

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Gure kontsumo-ohiturez eta gure jokabideez hausnartzea.
Modu arduratsu eta solidarioagoan jokatzeko ekintza zehatzak proposatzea.
Ingurumenari eta kontsumoari begira gure jokabidea zertan alda dezakegun identifikatzea.
Garapen jasangarrirako 2., 6., 7., 11., 12. eta 13. helburuak.

Iraupena

Galdetegiari buruzko hausnarketa astebetean zehar egin dezake ikasle bakoitzak. Taldeko lana, berriz, saio bakar batean egiteko dago pentsatuta.

Beharko dugun materiala

Eranskineko fitxa (ikasle bakoitzarentzat bat).

Zikloak 2, 3

Garapena

Eman ikasle bakoitzari galdetegiaren fotokopia bat. Ikasle bakoitzak bere galdetegia bete beharko du. Garrantzitsua da galdera bakoitzaren erantzuna aukeratu baino lehen ondo pentsatzea.

Galdetegia guztiek bete dutenean, jarri ikasleak launaka edo bosnaka. Talde horietan, galderen hiru ataletan eman dituzten erantzunen inguruan hausnartu behar dute:

- Energia-kontsumoa.
- Zaborrak eta hondakinak.
- Gure kontsumo-ohiturak.

Ikusi zertan dabilzan bikain, eta alderdi horien artean zein errepikatzen diren gehien. Garrantzitsua da zorionak ematea eta horrela jarraitzera bultzatzea.

Era berean, ikusi zertan dabilzan gaizki eta zertan hobetu behar luketen, eta taldean gehien errepikatzen direnak zein diren zehaztu.

Talde guztiek beren lana amaitu dutenean, ikusi ikasle guztiak zertan dabilzan bikain, zertan gaizki, eta zertan hobetu behar luketen.

Hausnarketa

- Jarduera honek lagundu al dizue zuzendu eta hobetu behar dituzuen alderdiak zein diren jakiten?
- Ba al zenekiten zein alderditan zeneukaten zuzendu edo hobetu beharra?
- Zuen ustez, zaila al da zuen jokabideak aldatzea, ala ahalegina eginez gero lortuko duzue?

Kontrol-fitxa, GURE KONTSUMO-EREDUA

Ohar garrantzitsua:

Galdera hauetako batzuk ez dira zuk zeuk daukazun ohiturei buruzkoak, baizik eta etxean daukazuen ohiturei buruzkoak; beraz, kasu batzuetan ez duzu erantzun behar zuk zer egiten duzun, baizik eta familian zer egiten duzuen.

Galdera bakoitzaren ondoren hiru erantzun daude, eta hiru horietatik bat aukeratu behar duzu: zure kasuari gehien egokitzen zaion erantzuna, hain zuzen.

A ATALA: ENERGIA-KONTSUMOA (KUTSADURA)

1. Itzaltzen al duzu argia, behar ez duzunean?

Bai, behar ez dudan guztietan itzali egiten dut.	B
Ez, piztuta uzten dut; ez zait gustatzen etxea ilunpetan egotea.	G
Batzuetan bai, itzaltzen dut, baina beste batzuetan ahaztu egiten zait eta piztuta uzten ditut.	H

2. Behar baino argi gehiago pizten al dituzu?

Ez; behar ditudan argiak bakarrik pizten ditut.	B
Bai; dena piztuta egotea gustatzen zait.	G
Normalean, behar ditudan argiak bakarrik pizten ditut, baina batzuetan behar baino gehiago pizten ditut.	H

3. Zure aisialdian zenbat erabiltzen dituzu elektrizitatea behar duten gailuak? (mugikorra, tableta, ordenagailua, kotsola, eta abar)

Pixka bat bakarrik.	B
Ia denbora guztia.	G
Nire aisialdi-denboraren erdia gutxi gorabehera.	H

4. Etxean, behar baino tenperatura altuagoan jartzen al duzue berogailua?

Ez, tenperatura egokian jartzen dugu, eta hotza izanez gero jertsea edo beste zerbait jantzen dugu.	B
Bai, oso altu jartzen dugu berogailua, negua izan arren etxean mahuka motzean egotea gustatzen zaigulako.	G
Normalean tenperatura egokian jartzen dugu, baina batzuetan altu samar.	H

5. Garraio publikoan joan daitekeen lekuetara autoz joaten al zarete?

Ez, behar-beharrezkoa denean bakarrik erabiltzen dugu autoa.	B
Bai, leku guztietara autoz joaten gara, nahiz eta garraio publikoa egon.	G
Gehienetan garraio publikoa erabiltzen dugu, baina, batzuetan, garraio publikoa erabiltzeko aukera egon arren, autoa hartzen dugu.	H

B ATALA: ZABORRAK ETA HONDAKINAK (KUTSADURA)

6. Etxean bereizten al dituzue hondakinak (plastikoa, kristala, papera eta kartoia, hondakin organikoak)?

Bai, noski. Ez zaigu ezer kostatzen eta ona da ingurumenerako.	B
Ez, ez ditugu bereizten. Dena zakarrontzi berean botatzen dugu.	G
Batzuetan bai, baina ez beti.	H

7. Paketatuta dauden produktu asko erosten al dituzue?

Ez, produktu gehienak soltean erosten ditugu.	B
Bai, produktu gehienak paketatuta erosten ditugu; erosoagoa da.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

8. Mendira joatean, zuen hondakin guztiak jasotzen al dituzue?

Bai, hondakin guztiak bildu eta gurekin eramaten ditugu.	B
Ez, hantxe uzten ditugu. Ez dugu zama gehiago eraman nahi izaten.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

C ATALA: GURE KONTSUMO-OHITURAK

9. Etxean botatzen al duzue janaririk? (Hausnarketa egiteko eta datuak eskuratzeko beharrezkoa izanez gero, «Elikagaiak eta ura GJH» blokeko «Etxean botatzen duguna» jarduerara jo dezakezue).

Ez, gure etxean ez dugu janaririk botatzen; dena aprobetxatzen dugu.	B
Bai, janari asko erosten dugunez, gero hondatu egiten zaigu eta bota egiten dugu.	G
Normalean ez dugu botatzen, baina batzuetan bai.	H

10. Ura alferrik gastatzen al duzu? Adibidez, hortzak garbitzean irekita uzten al duzu txorota, edo behar baino denbora gehiago ematen al duzu dutxan?

Ez; kontu handiarekin ibiltzen naiz urarekin.	B
Bai, nahi dudan guztia gastatzen dut; ez zait axola ur asko gastatzea.	G
Normalean kontuz ibiltzen naiz, baina batzuetan despistatu egiten naiz.	H

11. Behar ez dituzuen gauzak erosten al dituzue?

Ez; behar duguna bakarrik erosten dugu beti.	B
Bai; asko gustatzen zaigu merkataritza-guneetan erosi eta erosi ibiltzea.	G
Normalean ez, baina batzuetan bai.	H

12. Etxea garbitzean, ingurumena kaltetzen duten produktuak erabiltzen al dituzue?

Ez, produktu biodegradagarriak erabiltzen ditugu.	B
Bai; produktuak erabiltzean ez dugu begiratzen ingurumena kaltetzen duten edo ez.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

13. Lan-baldintza egokiekin egindako produktuak erosten al dituzue?

Bai, oso kontuan izaten dugu hori.	B
Ez; gauzak erosten ditugunean ez dugu galdetzen nork eta nola egin dituen.	G
Batzuetan bakarrik.	H

14. Produktuak erostean kontuan izaten al duzue ingurumena zainduz eginda dauden?

Bai; garrantzi handia ematen diogu ingurumena zaintzeari.	B
Ez; ez dakigu produktuak nola eginda dauden eta ez zaigu axola.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

B erantzunak esan nahi du bikain jokatzeko duzula.

G erantzunak esan nahi du gaizki jokatzeko duzula.

H erantzunak esan nahi du hobetu egin behar duzula.

BALIABIDEEN DORREAK

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Estrategiak lantzea eta taldean jardutea.

Trebetasun pertsonalak garatzea.

Baliabide naturalak ustiatzearen inguruan hausnartzea.

Garapen jasangarrirako 12., 13. eta 15. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Jenga jokoak edo antzekoak.

Zikloak 1, 2, 3

Aurretiazko oharra

Jenga jokoak edo antzeko beste batzuk erabiliko ditugu jarduera hau egiteko, baina hemen aldatu egingo ditugu arauak, kasu honetan helburua ahalik eta fitxa gehien ateratzea baita, baina gero inon jarri beharrik izan gabe. Dorrea erori gabe fitxa gehien ateratzen dituen taldea izango da irabazlea.

Bospasei ikasleko taldeak egin. Talde bakoitzean, kide bat behatzaile-lanetan arituko da, taldekideek tranparik egiten ez dutela begiratzeko eta taldearen estrategia idazteko.

Hasi baino lehen, taldeko kideak estrategia prestatzen eta dorrea muntatzen ari diren bitartean, behatzaileak bazter batera eraman, eta beren eginkizuna zein izango den azaldu:

- Arauak betetzen direla begiratu behar dute.
- Taldekideek nahi bezala atera ditzakete piezak, baina betiere banan-banan.
- Dorrea erori egiten bada, ezin izango dute berriro muntatzen hasi.
- Behatzaileek begiratu bakarrik egin behar dute; ezin diote taldeari dorreko piezak ateratzeari buruzko aholkurik eman.

Behatzaileei argi eta garbi esan fitxa guztiak goitik kentzeak balio duela –hemen arauak ez baitira jatorrizko jokoaren berdinak–, eta ez dela beharrezkoa dorrearen egitura mantentzea. Dorrea ez erortzea da kontua.

Garapena

Jarri ikasleak taldeka eta esan talde bakoitza mahai baten inguruan esertzeko. Mahaiaren gainean fitxen dorrea eraiki beharko dute.

Ondoren, jokoaren dinamika azaldu: «*Talde bakoitzak dorre bat daukazue. Dorre horretako fitxak banan-banan atera behar dituzue, eta ahalik eta fitxa gehien lortu. Dorrea erori gabe fitxa gehien ateratzen dituen taldea izango da irabazlea. Hasi baino lehen, denboratxo bat izango duzue, zer estrategia erabiliko duzuen pentsatzeko, eta nahi izanez gero entsegu bat egin dezakezue. Estrategia zehazten duzuenean, behatzaileari kontatu beharko diozue, eta estrategia horri jarraitu beharko diozue; ezin izango duzue aldatu. Behatzaileek begiratu dute adostutako estrategiari jarraitzen diozuela, arauak betetzen dituzuela, eta zenbat fitxa ateratzen dituzuen kontatuko dute.*

Zalantzarik edo galderarik baduzue, ez egin ozen; niri deitu, eta hurbilduko naiz laguntzera».

Ondoren, eman hasiera jarduerari. Eman denbora pixka bat estrategia prestatzeko eta talde bakoitzak dituen zalantzak argitzeko.

Talde guztiek fitxak ateratzen amaitzen dutenean, behatzaileek beren taldearen estrategia azalduko dute eta zenbat fitxa lortu dituzten esango dute. Dorrea erori den edo ez ere esan behar dute.

Hausnarketa

Denen artean, hausnarketa egin, galdera hauen bidez:

- Taldearen estrategia prestatzen hasi zaretenean, zein zen zuen lehentasuna? Zer izan duzue kontuan?
- Erori egin al zaizue dorrea? Baiezkoan, zergatik erori da, zuen ustez?
- Talderen bat goitik hasi al da dorrea desmuntatzen? Baiezkoan, dorrerik ba al du talde horrek? Zer desberdintasun dago dorrea eraitsi zaien taldeekin?
- Paralelismorik ezar al daiteke joko honen eta gure planetan baliabide naturalak erauztearen artean? (Eman dezatela beren iritzia).
- Analogia horri jarraikiz, zer esan nahi du dorrea erori izanak? Eta zer esan nahi du fitxa guztiak lortu eta dorrerik gabe gelditu izanak?

IRAKURKETA-FITXA***TITIKAKAKO ALTXOR GALDUA*****Jarduera honekin, zera landuko dugu**

Ipuinetatik irakaspenak ateratzen ikastea.

Garapen jasangarriko 2., 8., 7., 11., 12. eta 13. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Jenga jokoak edo antzeko zerbit.

Zikloak 1, 2, 3

Aurretiazko oharra

Ipuina irakurri eta hausnarketa egitean datza jarduera hau. Ipuin honek, izan ere, ikasturte honetako materialek jorratzen dituzten kontzeptuetako asko biltzen ditu. Ikasleen adinaren arabera, gai hauek guztiak landu ditzakezue ipuina irakurri ostean:

- Baliabideak gehiegi ustiatzea. Jasangarritasuna.
- Ingurumena hondatzea.
- Gizakien ekintzek ingurumenari eragiten dizkioten kalteak.
- Naturak ematen dizkigun abisuak. Abisu horiek kontuan hartzearen garrantzia.
- Migrazioak.
 - Immigrazioa kontrolatzea.
 - Immigranteak lanerako erabiltzea.
 - Errefuxiatu klimatikoak.
- Merkatuaren arauak: monopolioak, lehia.
- Aberastea eta pobretzea.
- Elikagaiak botatzea.
- Munduan bizi gara, eta izaki bizidun guztiok zaindu eta errespetatu egin behar dugu planeta.

Garapena**Arretaren proba (aukerakoa, ikasleen adinaren arabera egiteko)**

Ipuina irakurri ondoren, eta betiere ikasleen adinaren arabera, galdera batzuk egin, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Egia edo gezurra den esan beharko dute esaldi bakoitzaren ondoren:

- Gure protagonistari ez zaio batere gustatzen arrantza egitera joatea.
- Phuyu eta bere amona itsasoan ibiltzen dira arrantzan.
- Akuriak Titikaka aintzirako totorazko uharteetan bizi ziren.
- Uharteko akuriek denei uzten zieten uhartean bizitzen.
- Pachakúteq-ek barazkiak lantzen zituen uhartean.
- Uhartearen behealdeko totorek oso zapore txarra zeukaten.

- Pachakúteq-ek akuri asko kontratatu zituen, totora gehiago ekoizteko eta saltzeko.
- Tunelak urez betetzen hasi ziren.
- Akuriek, uhartea hondoratzen hasi zela ikustean, utzi egin zioten induskatzeari.
- Uhartea, azkenean, hondoratu egin zen.

Hau;narketa

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, besteak beste galdera hauek eginez:

- Zenbat pertsonaia azaltzen dira ipuinean?
- Gogoratzen al dituzue haien izenak?
- Istorioan sakondu baino lehen, idatzi izenak arbelean.
- Zergatik ekoitzi nahi zituen Pachakúteq-ek hainbeste totora? Nola jarduten zuen?
- Zer ondorio izan zuen bere jarduerak...?
 - bere negozioaren gainean.
 - elikagaiak ekoizten zituzten beste akurien gainean.
 - toteren uhartearen gainean.
- Zer egin zuten uharteko akuriek beren indusketaren ondorioak ikustean?
- Ipuinak *Titikakako altxor galdua* du izena. Zuen ustez, zein da altxor hori? Uhartearen behealdeko totorak bakarrik?
- Zer gustatu zaizue gehien ipuin honetatik? Zergatik?
- Zein ondorio ateratu duzue ipuinaren bukaeran? Gizakiok munduan egiten ari garenaren antzik ba al du zuen ustez?
- Non biziko gara munduan bizitzea ezinezkoa bihurtzen denean?

TITIKAKAKO ALTXORRA

Niri asko gustatzen zait nire amonarekin arrantza egitera joatea.

Nire amonak oso ondo egiten du arrantza, oso trebea da. Normala, txikitandik egiten du-eta! Ni ere oso arrantzale trebea izango naiz bere adina izaten dudanean. Goiz bakar batean, saski bat betetzeko adina arrain harrapatzen ditugu. Gero, Copacabanako merkatura joaten gara arraina saltzera, eta horrela diru pixka bat lortzen dugu. Amonak beti diru pixka bat ematen dit arraina merkatuan saltzen dugunean. Nire lanaren ordainsaria dela esaten dit. Eta diru horrekin nahi dudana eros dezaket!

Copacabana hiria Titikaka aintziraren ertzean dago. Altuera handian dago, Andetan, Bolivia eta Peru artean. Aintziraren ondoan bi hiri daude: Copacabana (Bolivia) eta Puno (Peru). Aintziran arrantza egin daiteke, eta jende asko aritzen da arrantzan. Baina gauzarik deigarriena «totora» izeneko landareak dira, uraren ertzean jaiotzen diren ihi luze batzuk. Totorekin gauza asko egin daitezke; uharte artifizialak ere bai, horietan jendea bizitzeko.

Gaur goizean, arrain asko harrapatu ditugu. Ematen zuen besteetan baino arrain gehiago zeudela aintziran, edo denek gure saskian sartzeko gogoa zutela! Saskia betetakoan, amonak esan dit horrekin nahikoa genuela. Baina nik gehiago harrapatu nahi nituen.

—Amona, gaur hainbeste arrain harrapatzen ari garenez, zergatik ez ditugu gehiago harrapatzen? Horrela, gehiago salduko dugu merkatuan eta diru gehiago lortuko dugu —esan diot nik—. Eta propina handiagoa emango didazu! —Bueno, propinarena ez diot esan, baina pentsatu egin dut—.

—Ez, Phuyu —esan dit amonak—. Hartu dugunarekin nahikoa daukagu etxerako eta merkatuan saltzeko. Ez dugu gehiago behar. Jende asko aritzen gara arrantzan.

—Bai, amona, badakit, baina gutxi batzuk gehiago harrapatzeagatik ez da ezer gertatuko. Mesedez, gaur bakarrik.

—Begira, guk arrain batzuk gehiago harrapatzen baditugu, eta beste batzuek beste batzuk gehiago, azkeneko arrain pila bat aterako dugu uretatik. Ni txikia nintzenean, orain baino askoz arrain gehiago zeuden aintziran. Aintzirak, naturako gauza guztiek bezala, bere erritmoa eta bere arauak dauka, eta, errespetatzen ez baditugu, azkenean gure aurka jartzen dira. Nire amak kontatzen zidan istorio bat kontatuko dizut. Eseri nire ondoan, Phuyu.

«Duela urte asko eta asko gertatu zen, oso aspaldi. Garai hartan, hemen ez zen gizakirik bizi, eta animaliek hitz egiten zekiten. Inguru honetan, aintziraren ertzean, akuriak¹ bizi ziren. Akuri batzuk totorez egindako uharte batean bizi ziren. Totora horiek, elkarren gainean jarrita, zoru sendo bat osatu zuten denborarekin, eta uharte bat sortu zen horrela. Akuriek esaten zuten bizitzeko lekuri onena zela uharte hura, harrapakariak ez zirelako haraino iristen eta lasai bizi zitezkeelako.

Gainera, uhartean lantzen zituzten barazkiak askoz goxoagoak ziren lurrean lantzen zituztenak baino, eta ziztu bizian saltzen zituzten aintziraren ertzeko merkatuetan. Horrela, uharteko biztanleak aberatsagoak bihurtu ziren gainerakoak baino. Kanpoko akuri askok uharte pribilegiatu hartan bizi nahi

¹ Akuriak ugaztun karraskari batzuk dira, untxi txikien tankerakoak. Jatorriz Andeetakoak dira eta oso ohikoak dira Hegoameriketako herrialde askotan.

zuten, baina uharteko biztanleek ez zieten uzten. Egia da leku gehiegi ere ez zegoela, baina kanpoko akuriek pentsatzen zuten uharteko akuriek dena berentzat nahi zutela eta ez zutela nahi beste inor haiek bezala aberasterik.

Uhartean bazen akuri bat Pachakúteq izenekoa. Bera ere, gainerakoak bezala, barazkiak lantzen aritzen zen. Baina berak besteek baino gehiago nahi zuen beti, eta bere eremutxoa nola edo hala handitu nahian aritzen zen, horrela gehiago ekoizteko eta diru gehiago lortzeko. Egun batean, bururatu zitzaion bere eremutxoa induskatuz leku gehiago lortuko zuela, azalean ez ezik azpian ere lekua izango zuelako. Leku asko irabaziko ez bazuen ere, apur bat behintzat handituko zuen bere eremua. Beraz, gau batean, iluntasunean, inork ikusi ez zezan, bere etxearen behealdea induskatzen hasi zen, azpian gela batzuk egiteko. Lan handia egin zuen, baina ez zegoen emaitzarekin pozik. Lan gogorra zen induskatzea, eta, gainera, ilun-iluna zegoen dena; ez zuen ematen bizitzeko oso leku aproposa. Goibelduta, lurrian eseri zen akuria. Bat-batean, usain zoragarri bat iritsi zitzaion, eta inguruan zeuzkan totoresetatik zetorrela ohartu zen. Hain usain gozoa zutenek, totora puska bat ahoan sartu zuen... Oso goxoa zegoen! Beharbada, hezetasunarekin eta iluntasunarekin, ondu egin ziren. Kontua da kanpokoak baino askoz leunagoak zeudela, hobeto jaten zirela eta zapore goxo-goxoa zutela. Hura bai aurkikuntza!

Hurrengo egunean, merkatura joan zenean, totora horietako batzuk eraman zituen, saltzeko asmoz. Haien usain zoragarriak jende asko erakarri zuen, eta totora guztiak ziztu bizian saldu zituen.

—Hau bai pagotxa! —pentsatu zuen—. Horrelako totorak saltzen hasiko naiz! Baina ez diot inori esango nola lortu ditudan. Horrela, uharte osoko akuririk aberatsena bihurtuko naiz!

Etxera itzuli zenean, hesitu egin zuen bere eremutxoa. Horma luze-luze bat eraiki zuen inguru guztian, inork ez zezan barrualdea ikusi. Gero, induskatzen hasi zen, eta gehiago ekoizten. Gau osoa lanean eman zuen, hurrengo egunean dena merkatura eramateko. Orduan ere sekulako arrakasta izan zuen, dena berehala saldu baitzuen. Etxera joan zenean, totora gehiago ateratzen hasi zen. Handik gutxira, erosle ikaragarri zeuzkan, totorak erosteko irrikaz. Hortaz, uhartetik kanpoko bi akuri kontratatzea erabaki zuen, berarentzat lanean has zitezen. Ez zuen nahi uharteko beste inork bere sekretua ezagutzerik eta ideia kopiatzerik; horregatik hartu zituen kanpoko bi akuri.

Hiru akurien artean, sekulako ekoizpena lortu zuten. Pachakúteq totorak saltzera merkatura joaten zen bitartean, beste bi akuriak totorak eskuratzen geratzen ziren, gero eta tunel gehiago induskatzen. Pila bat ekoizten hasi ziren, saltzen zutena baino askoz gehiago. Orduan, Pachakúteq-ek, gero eta diru gehiago irabazi nahi zuenez, jaitsi egin zuen totoaren prezioa, gehiago saltzeko.

Akuriak lehen baino totora gehiago erosten hasi ziren, merke zeudelako, eta handik gutxira hamabost akuri zeuzkan berentzat lanean Pachakúteq-ek. Sekulako arrakasta lortu zuen. Akuri batzuk oso urrutitik etortzen ziren, merkaturan bere totorak erostera. Ikaragarritzko iraultza zen hura!

Baina horrek guztiak bi ondorio izan zituen:

Batetik, totorak oso merke saltzen zituenenez, akuriek asko eta asko erosten zituzten, baina sobera gelditzen zitzaizkienak, hurrengo egunerako utzi beharrean, bota egiten zituzten, eta berriak erosten. Akuriek ordura arte sekula ez zuten janaririk bota!

Bestetik, merkatuan barazkiak saltzen egoten ziren akuriak gero eta behartsuago bihurtzen joan ziren; izan ere, Pachakúteq-en totorak haien barazkiak baino goxoagoak eta merkeagoak zirenez, gero eta gutxiago saltzen zuten.

Baina Pachakúteq-i hori ez zitzaion batere axola. Hogeita hamar akuri zeuzkan berarentzat lanean. Langile horiek bere eremuan bizi ziren, etxetxo batzuetan. Kanpoko akuriek berarentzat egiten zuten lan, ez zitzaion axola haiek ere uhartean bizitzea.

Zuloak egiten joan ahala, tunelez betetzen joan zen uhartea, eta halako batean tunel horietako batzuk urez betetzen hasi ziren. Hasieran ez zen ur asko eta ez zioten garrantzi handiegirik eman.

Baina, halako batean, uharteko akuri batzuek sekretua deskubritu zuten, eta orduan haiek ere induskatzen eta totorak ateratzen hasi ziren. Sekulako norgehiagoka sortu zen haien artean! Denak aberasteko irrikan zeudenez, lehia bizian aritzen ziren, nork ekoitziko gehiago eta salduko azkarrago. Handik gutxira, ia akuri guztiak zebiltzan uharte osoan barrena zuloak egiten».

Une horretan, amona bat-batean isildu egin da, eta niri begira geratu da. Orduan, hauxe esan dit:

—Baina, hasieran esan dizudan bezala, naturak bere arauak dauzka, Phuyu maitea.

—Eta orduan zer gertatu zen, amona?

Eta amonak istorioa kontatzen jarraitu du.

«Pixkanaka-pixkanaka, tunelak urez betetzen joan ziren. Hasieran ez zen ur asko, baina, hainbeste tunel zeudenez, gero eta ur gehiago sartzen joan zen, eta uhartea pixkanaka-pixkanaka hondoratzen hasi zen.

Akuri batzuk horretaz konturatu ziren eta ingurukoei ohartarazten hasi ziren, baina ez zieten kasurik egin. Pachakúteq eta beste akuri batzuk haien aurka jarri ziren, esanez garaia aldatu egin zirela, denei gustatzen zitzaizkiela elikagai berriak, eta hain tradizionalak izatea ez zela ona.

Akuriek totorak ekoizten jarraitu zuten, oharrei kasurik egin gabe. Eta, halako batean, egun batean, uhartea hondoratzen hasi zen.

Aieneka eta oihuka hasi ziren orduan. Ahaleginak eta bi egin zituzten uhartea ez hondoratzeko, baina alferrik: beranduegi zen; ez zeukan erremediorik. Denek uretan amaitu zuten, eta igerian uraren ertzeraino joan behar izan zuten. Han, beste akuri batzuek lagundu egiten zieten. Eskerrak akuri zintzoak ere bazeuden!».

—Geroztik, akuriak ez dira aintzirako uharteetan bizi; orain, lurlean egiten dituzte beren etxeak. Eta esaten dute noizbehinka lurra induskatzen ibiltzen direla, hainbeste gustatzen zitzaizkien totora haiek aurkitzeko itxaropenez.

—Ene, amona! Ederra egin zuen Pachakúteq-ek! Hain zuzen ere, bere izenak esaten zuena²! Orain ulertzen dut istorio horrekin zer esan nahi didazun. Nik

² Pachakúteq izenak, kitxua hizkuntzan, «mundua aldatzen duena» esan nahi du.

arrain gehiago arrantzatu nahi nituen, baina zaindu egin behar dugu aintzira. Dirua besterik ez neukan buruan, ipuineko akuriak bezala!

—Hala da, bai. Batzuetan, ondo pentsatu gabe egiten ditugu gauzak, zer ondorio izan ditzaketen pentsatu gabe.

—Oso istorio polita da, amona, baina ez dut uste konparazio egokia denik.

—Zergatik diozu hori, Phuyu?

—Mundu guztiak dakielako gizakiak akuriak baino bizkorragoak garela! Guri ez litzaiguke bururatu ere egingo bizi garen lekua hondatzea. Berehala konturatuko ginатеke eta geldiarazi egingo genuke hondamendia, ezta?

Amonak irribarre egin du.

—Ikusten dudanez, oraindik asko daukazu ikasteko, Phuyu.